

EUOPAR BATASUNA:
EGUNGO HIZKUNTZA-POLITIKAREN
AZTERKETA
ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENA

ESKERRAK

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet lan hau egiten lagundu didaten guztiei: Mercator, SEI, Elin Haf Jones, George Jones, Onno Falkena, Alexia Bos i Solé, Miquell Strubell, Iñaki Martinez de Luna, Belen Uranga, Aitor Zuberogitia, eta, nola ez, lan honen tutore izan den Patxi Juaristiri. Euren laguntzarik gabe, ezin izango nukeen sakontze-egitasmo hau gauzatu.

“El monolingüe tendeix a creure en una identificació entre la realitat i la seva expressió verbal i, per tant, tendeix a un pensament absolut i absolutista, mentre que el que està acostumat a utilitzar diverses llengües i a moure`s entre diferents cultures accepta amb més facilitat les diferències i les ambigüitats. Per tant, si hem renunciat a construir una Europa de moden únic, una Europa uniforme [...] i ens hem decantat pel respecte a la varietat i a la llibertat, podem concloure que ens hem decantat al mateix temps per una Europa de billingües i fins i tot, per què no dir-ho?, de mestissos”.¹

Miquel Siguan

¹ Siguan, M. *L'Europa de les llengües*. 2. Edizioa. Bartzelona: Edicions 62, 1996, 8.or.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA: HIZKUNTZAREN GARRANTZI POLITIKOAZ BI HITZ.....	1
2.	ERROMAKO ITUNA: EB-KO HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN JATORRIA.....	3
3.	HIZKUNTZA OFIZIAL GUZTIAK LAN HIZKUNTZA OTE?	5
4.	HIZKUNTZA OFIZIALEN ETA EZ OFIZIALEN ARTEKO ETENA.....	7
5.	ESPAINIAKO ALDERDI SOZIALISTAREN PROPOSAMENA	9
6.	ESTATUEN KONTRAESANA	11
7.	EUROPAKO HIZKUNTZ MOSAIKOA: ESTATU-HIZKUNTZAK, HIZKUNTZA GUTXITUAK ETA IMMIGRANTEEN HIZKUNTZAK.....	13
8.	EUROPAR BATASUNA ETA HIZKUNTZEN EREMUA	15
8.1	HIZKUNTZA-AUZIAK, EB-REN PRINTZIPIO OROKORREKIN LOTUTA.....	15
8.2	ZUZENEAN EDO ZEHARKA HIZKUNTZEN EZAGUTZA EDO ERABILERAREKIN LOTZEN DIREN PROGRAMA ETA EKIMENAK.....	16
8.3	EUROPAKO ERAKUNDEEN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK	16
8.3.1	<i>Justizia Auzitegia</i>	<i>16</i>
8.3.2	<i>Ministroen Kontseilua.....</i>	<i>177</i>
8.3.3	<i>Europako Parlamentua</i>	<i>17</i>
8.3.4	<i>Europako Batzordea</i>	<i>17</i>
8.3.5	<i>Europako Kontseilua.....</i>	<i>17</i>
8.4	EUROPAKO ERAKUNDEEK HIZKUNTZA GUTXITUEN ETA ERREGIONALEN ALDE EGINDAKO LANA.....	17
8.4.1	<i>Europako Kontseilua</i>	<i>18</i>
8.4.2	<i>Ministroen Kontseilua.....</i>	<i>20</i>
8.4.3	<i>Europako Parlamentua</i>	<i>20</i>
8.4.4	<i>Europako Batzordea</i>	<i>24</i>
9.	ETORKIZUNA: EB-REN HIZKUNTZA-POLITIKA EGOKITZEKO PROPOSAMENA.....	26
10.	BIBLIOGRAFIA.....	30

1. SARRERA: HIZKUNTZAREN GARRANTZI POLITIKOAZ BI HITZ

Europa deitzen diogun errealitate kultural eta politikoaren hizkuntz eta kultur aniztasuna aspaldikoa da: Erdi Aroan dagoeneko hizkuntza ugari hitz egiten ziren eremu horretan, eta, halaber, hizkuntza bakoitzak aldaera asko zituen. Aniztasun horren ondoan, ordea, bazen hizkuntza komun bat ere, hizkuntza-funtzio jasoak betetzen zituena: latina, hain zuzen.

Aro Modernoan, besteak beste inprentak eta erreforma protestanteak lagunduta, hizkuntza bulgarak literatur eta kultur hizkuntza bihurtu ziren. Horretarako, hiztegia eta gramatika finkatu behar izan zen, bestela esanda, hizkuntza kodifikatu.

Latinari leku hartu eta Europan nagusi izango ziren hizkuntzen finkatze-prozesu horretan, faktore politikoek esku hartu zuten nagusiki, batez ere estatu nazionalen sorrerak. Frantzia da prozesu horren paradigma: estatua sortu aurretik hizkuntza ugari hitz egiten ziren eremu hartan, baina Frantziako estatuaren sorrerak frantsesa eremu guztira zabaltzea ekarri zuen, batasun politikoa lortzeko batasun linguistikoa beharrezko baldintza zela uste zen eta. Halatsu gertatu zen gainerako estatuetan ere.

XIX. mendeko Alemaniako pentsamendu erromantikoak sendotu baino ez zuen egingo ikuspegi hori, nazionalismo linguistikoaren doktrinarekin: Herder eta Fichte pentsalari alemaniarrek defendatzen dute hizkuntza bera hitz egiten duten pertsonen kultura propioa duen komunitate historiko bat osatzen dutela, eta komunitate horretaz kontzientzia hartzen dutenean, politikoki komunitate gisa antolatzeke eskubidea aldarrikatzen dutela, hots, estatu izateko eskubidea.

Nazionalismo linguistiko horrek, zalantzarik gabe, eragin handia izan du azken bi mendeotako Europako politikan, eta ondorio garrantzitsuak ekarri ditu: batetik, estatu-nazioentzat monolinguismoa justifikatzeko doktrina bihurtu zen, eta, bestetik, hizkuntza bera hitz egiten zuten baina historikoki estaturik izan ez zuten herrialdeen aldarrikapenen oinarri bihurtu zen. Halaber, etnia eta hizkuntza ugari biltzen zituzten inperioak (adibidez, inperio austrohungariarra) hizkuntza propioa duten unitate nazionaletan banatu ziren.

Hizkuntzak, beraz, inplikazio politiko garrantzitsuak ditu, eta, hain zuzen, horregatik da hain auzi korapilatsua; horregatik aldarrikatzen dute estatuak hizkuntza-gaietan erabateko eskumena, estatuz gaindiko erakundearen eragina hutsaren hurrengora murriztuz.

Paradoxikoki, estatu-nazioetan hizkuntza nazionalaren alde egiten zen bitartean, industrializazioak eta aurrerapen teknikoak areagotu egin zuen elkarrekiko mendekotasuna eta komunikatzeko beharra; beraz, baita beste hizkuntzak jakiteko beharra ere. Zer esanik ez, globalizazioarekin, areagotu egin dira estatuaren mugez haraindiko harremanak. Horren guztiaren ondorioz, alde batetik, hizkuntza komunak erabiltzeko beharra handitzen ari da; bestetik, ordea, hizkuntz aniztasunari eusteko asmo sendoa dago.

Aurrez aurre ditugu globalizazioa eta glokalizazioa, tokiko kultura eta hizkuntza indartzea eta berpiztea eragin duen fenomenoak. Izan ere, ez da ahaztu behar kultura eta hizkuntza erregionalak, neurri handi batean, komunikabide modernoek eta globalizazioak bultzatzen duten kultura unibertsalisten edo masen kulturaren alternatiba direla. Desintegratzen ari den gizartean hizkuntzak integrazio-faktoreen ordeztoko gisa jokatzeko duela.

Globalizazioa eta glokalizazioa. Bi joera horien arteko tirabirak ezin hobeto antzematen dira Europar Batasuneko erakundeetan; eta, hain zuzen, erakunde horien hizkuntza-funtzionamendua eta erakunde horiek hizkuntz aniztasunarekiko duten konpromisoa da lan honen aztergaia.

2. ERROMAKO ITUNA: EB-KO HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN JATORRIA

Napoleonek XIX. mendearen hasieran eta Hitlerrek XX. mendearen erdialdean uste izan zuten Europa batera zitekeela, nazio bakar baten hegemoniatik abiatuta. Aldiz, gaur egun Europa eraikitzeke ahaleginek oso bestelako planteamendua dute oinarrian.

XIX. mendean eta XX. mendearen lehenengo erdian Europa oso garrantzitsua izan zen mundu mailan; aldiz, II. Mundu Gerraren ostean, ahul geratuko da, eta, hain zuzen, ahultasun hori izango da Europa batuaren beharra justifikatzeko argudioetako bat.

Baina XX. mendean proposatutako batasun-ereduak muzin egingo dio estatu baten hegemoniari; aldiz, maila berean egongo diren estatu subiranoen arteko batasuna lortu nahi da. Batasun hori, hasiera batean, ekonomia arloan soilik proposatuko da, eta ekonomian emandako bateratze-urratsek gero eta konpromiso politiko solidarioak ekarriko dituztela pentsatzen da, azkenean Europa batuaren kontzientzia sortzeraino.

Hala, 1957an, Erromako Ituna sinatuta, Europako Ekonomi Elkartea sortu zen (EEE), soil-soilik helburu ekonomikoak zituela. EEEren ondorengo da Europar Batasuna (EB), eta haren planteamendu berari eutsi dio, alegia, batasun ekonomikoa izan du helburu nagusi. Bide horretatik, ekonomia-arloan urrats handiak egin dira, moneta bateratzeraino; aldiz, kulturaren eta hizkuntzaren arloko eskumena estatuari dagokio, eta erakundeak kontu handiz jardun du esparru horietan, estatuaren kompetentziak urratu gabe.

Dena den, EEEren sorreratik bertatik erabaki behar izan zituzten erakundearen hizkuntza-irizpideak, eta Europako erakundearen hizkuntza-erregimena Ministroen Kontseiluak aho batez ezarriko zuela xedatu zen Erromako Itunaren 217. artikuluan, betiere Justizia Auzitegiaren estatutuan aurreikusitako xedapenen kontra egin gabe.

Agindu horri erantzunez, Ministroen Kontseiluaren lehenengo xedapenak, 1958ko apirilean onartutakoak, Europako Ekonomia Elkartean eta Energia Nuklearraren Europako Elkartean zein hizkuntza erabiliko diren zehazten du. Xedapen hori zuzendu egin da erakundera kide berriak atxiki izan diren bakoitzean, betiere printzipio honi jarraituz: Estatu kide bakoitzaren hizkuntza ofizial guztiak erakundearen hizkuntza ofizial izango dira. Alegia, estatuen berdintasun juridikoaren printzipioarekin bat zetorren irizpidea aukeratu zen erakundearen hizkuntza ofizialak ezartzeko orduan ere.

Hasieran, sei kide zituen erakundeak: Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Holanda eta Luxenburgo. Lau ziren hizkuntza ofizialak: frantsesa, alemana, nederlandera eta italiara. Ondoren, 1973an, Britainia Handia, Irlanda eta Danimarka sartu ziren elkartean, eta orduan, gaelikoari estatus berezi bat eman ahal izateko, "lan-hizkuntza" terminoa sortu zen: gaelikoa hizkuntza ofiziala izango zen, baina ez lan-hizkuntza.

Izan ere, Irlandako gobernuak ez zuen gaelikoa lan-hizkuntza izan zedin eskatu, eta, ondorioz, bere erabilera bi kasutara mugatzen da: batetik, fundazio-itun guztiak gaelikora itzultzen dira (horregatik "Itun hizkuntza" ere esan izan zaio) eta itzulpena ofiziala da, hots, balio juridikoa du eta, bestetik, irlandarrek gaelikoa erabil dezakete Batasuneko instituzioetara zuzentzean, batez ere, Justizia Auzitegian.

Estatus bera egokitu zitzaion, geroago, luxenburgerari. Izan ere, Luxenburgo Batasunean sartu zenean alemana eta frantsesa ziren herrialdeko hizkuntza ofizialak, eta gerora luxenburgera gehitu zitzaionean, estatuak ez zuen eskatu hizkuntza ofiziala izatea.

EEE sortu zenetik ia mende erdi igaro den honetan, EBren hizkuntza-sistemak Ministroen Kontseiluaren lehenengo xedapenean oinarrituta jarraitzen du: zabalkunde guztietan, kide berrien hizkuntza ofizialak elkarteko hizkuntza ofizial eta lan-hizkuntza bihurtu dira. Erakunde baten lan-hizkuntzak zehaztea esan daiteke bere barne-funtzionamenduari eragiten dion auzia dela, baina Europar Batasunaren kasuan, hizkuntz aniztasunarekin duen konpromisoaren sinbolo bihurtu da, Europaren hizkuntz aniztasunaren sinbolo eta berme. Hizkuntz aniztasuna errespetatzea, eskubide baino gehiago, erakundeen jarduteko printzipioa da EBn. Elkarrekin ez du hizkuntza-politikarako helburu zehatzik, eta hizkuntza ofizial guztiak lan-hizkuntzat hartzea bihurtu da politika horren elementurik garrantzitsuenak.

Irizpide horri jarraituz, 2004ko maiatzetik, 25 estatu kide eta 20 hizkuntza ofizial eta lan-hizkuntza ditu Europar Batasunak: alemana, frantsesa, ingelesa, daniera, nederlandera, gaztelania, italiara, greziera, portugesa, suediera, eslovakiera, esloveniera, estoniera, hungariera, letoniera, lituaniera, poloniera, txekiera eta maltera. Alegia, hizkuntza horietara guztietara itzuli behar dira dokumentu guztiak, Europako Parlamentuan hizkuntza horiek guztiak erabil daitezke, hiritarrak hizkuntza horietako edozeinetan zuzen daitezke erakundeetara, eta erantzuna hizkuntza berean jasotzeko eskubidea dute.

XXI. mendean sartu garen honetan, beraz, EEEren sorreran bertan finkatutako irizpideari eusten zaio: Estatu kideen hizkuntza ofizialak ofizial dira EBn, eta, luxenburgeraren eta gaelikoaren kasuan izan ezik, hizkuntza ofizialak lan-hizkuntza dira. Bistan da, eleaniztasun integralaren eredu hori askoz arazotsuagoa da orain indarrean jarri zenean baino. Erakundearen sorreran, irizpide egokia izan zitekeen Europaren hizkuntz eta kultur aniztasuna islatzeko. Zabalkundearekin, ordea, gero eta konplexuagoa eta zentzugabeagoa da. Izan ere, gurean administrazioak bi lan-hizkuntza izateko zer-nolako zailtasunak dituen ikusita, posible ote erakunde batek hogeit hamar hizkuntza izatea?

3. HIZKUNTZA OFIZIAL GUZTIAK LAN HIZKUNTZA OTE?

XIX. mendean frantsesa zen nazioarteko harremanetan hizkuntza garrantzitsuena, eta EBn ere, lehenengo urteetan, frantsesa zen nagusi, honako arrazoi hauengatik:

1. Frantsesa zen diplomaziaren eta nazioarteko harremanen hizkuntza.
2. Mendebaldeko elite intelektualean zabalduen zegoen hizkuntza zen.
3. EBko erakundeak ezarri ziren hirietako hizkuntza zen: Brusela, Estrasburgo eta Luxenburgo.

II. Mundu Gerratik areagotu egin da, ordea, ingelesak nazioartean duen prestigioa, eta nazioarteko komunikazio-hizkuntza nagusi bihurtu da; halaber, areagotu egin da alemanaren presentzia ere.

Europar Batasunean hiru hizkuntza horiek dira nagusi: ahozko harremanen %80 hizkuntza horietan izaten dira. Ondoren, baina oso atzetik, gaztelania eta italiera daude.

Batasunaren barruko prozesu administratibo gehienak ere ingelesez edo frantsesez abiatzen dira, nahiz eta amaieran hizkuntza guztietara itzuli. Ildo horretatik, bada datu esanguratsu bat: itzulpen-zerbitzuen sail espainiarrak lanen %80 ingelesetik eta frantsesetik egiten du. Nahiz eta printzipioz hizkuntza ofizial guztiak lan-hizkuntza diren, lan-hizkuntza nagusiak ingelesa eta frantsesa dira, ondoren alemana, eta, atzetik baina nahiko urrun, gaztelania eta italiera.

Dena den, indarrean dagoen irizpideari jarraituz, erakundeak egindako ahozko nahiz idatzizko ekintza oro hizkuntza ofizial guztietara itzuli behar da, eta horrek, bistan da, gastu ekonomiko handiak dakartza. Hona hemen datu esanguratsu batzuk:

-Hamabost estatu kiderekin, 1,5 milioi orri itzultzen ziren urtean; 25 herrialderekin, 2,4 milioi orri. Batzorde, Parlamentu eta Kontseilurako 4.000 pertsonak dihardute hizkuntza-zerbitzuan lanean, eta orain beste 2.000 hasiko dira.

-Europako Parlamentuaren aurrekontuaren ia herena itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuetara bideratzen da.

-Zabalkundearekin egoera xelebreak ere sortu dira: malterako 135 itzultzaile-plaza atera dira, eta 40 hautagai soilik aurkeztu dira. Letonieran ere 82 hautagai baino ez daude 135 postutarako.

-Itzulpen-sistemak duen kostuaz gain, onartu behar da ez dela eraginkorra: gutxien erabiltzen diren hizkuntzetara oso berandu egiten dira itzulpenak.

Azken puntu horrek arrazoi garbi bat du: arestian azaldu bezala, hizkuntza ofizialak eta lan-hizkuntzak ez daude benetan parekatuta, ekuazio hori faltsua da. Izan ere, parekatze hori benetan gauzatu ahal izateko, elkarteko funtzionarioek hizkuntza guztiak erabiltzeko gai izan beharko lukete. Baina funtzionarioei, jatorrizko hizkuntzaz gain, beste bat jakitea besterik ez zaie eskatzen, eta gehienetan hizkuntza hori zabalduenetakoa izaten da. Hizkuntza-abanikoa mugatua da, beraz. Hasieratik bertatik konturatu ziren muga horretaz, eta erabaki zuten Batasuneko erakunde bakoitzak bere hizkuntza-araudia sortu behar zuela.

Funtsean, beraz, Batasunaren arabera hizkuntza ofizial guztiak lan-hizkuntza diren arren, egoera bestelakoa da: erakundeen erabakiak eta erabaki horien oinarri diren dokumentuak hizkuntza guztietara itzultzen dira; estatu nahiz hiritar guztiak erakundeekin harremanetan jartzeko ama-hizkuntza erabil dezakete; EBren funtzionamenduari buruzko informazio orokorra hizkuntza ofizial guztietan ematen da. Hortik kanpo, ordea, erakundeen eguneroko jardunean ingelesa eta frantsesa dira lan-hizkuntza, eta, maila apalagoan, baita alemana ere.

EBren zabalkundeak hizkuntza ofizialak eta lan-hizkuntzak identifikatzearen inguruko eztabaida indartuko du, irizpide hori EBk bakarrik duelako, gero eta bideraezinagoa delako, eta, gainera, ez delako betetzen. Horrez gain, bada beste arrazoi bat ere, erabakigarria ez den arren, guretzat oso garrantzitsua dena: itxuraz demokrazia linguistikoa oinarri duen irizpide horrek erabat baztertu eta zokoratu ditu hizkuntza ez-ofizialak.

4. HIZKUNTZA OFIZIALEN ETA EZ OFIZIALEN ARTEKO ETENA

Estatuak politikoki antolatzeko egitura nagusi bihurtu zirenetik, hizkuntzen arteko banaketa zorrotza gertatu da: hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen arteko bereizketaz ari gara. Halaber, estatuen sorrerak ekarritako eten horrek eragin nabaria izango du nazioarteko erakundeetan ere, eta zer esanik ez aztergai dugun EBn. Izan ere, EBk, estatuen berdintasun juridikoaren printzipiotik abiatuta, estatu kideen hizkuntza ofizialen arteko berdintasun-printzipioan oinarritu zuen bere barne-araudi linguistikoa.

Berdintasun printzipio hori aurpegi bikoia dela esan daiteke, ordea. Izan ere, begiratu batean estatu-hizkuntza guztiak maila berean jartzeak ekitatez jokatea dela dirudien arren, jokabide erabat eztabaidagarria da demokraziaren ikuspegitik: zergatik hartzen dira kontuan estatu-hizkuntzak soilik, hizkuntza ez-ofizialak bazter utzita?

Bestetik, zer da ofizialtasuna? Normalean, zuzenbidearen arabera, hizkuntza ofizialak eta hizkuntza gutxiak bereizten dira, baina euren arteko mugak ez daude beti hain garbi. Izan ere, kategoria lausoa da ofizialtasunarena, estatu batetik bestera legediak eta kontzeptu politikoak aldatu egiten dira-eta. Espainiako Auzitegi konstituzionalak ofizialtasun linguistikoaren definizio hau eman zuen 1986ko sententzia batean: “Es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos”. Beraz, kategoria juridiko baten definizioa da: erabaki politikoa errealtate soziolinguistikoaren gaineratik dago.

Horregatik, hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen arteko banaketak egoera paradoxikoak sortzen ditu; esaterako, zenbait hizkuntza ez ofizialek hiztun gehiago dute estatuko hizkuntza ofizial batzuek baino, eta sarritan baita kultur hedapen zabalagoa ere. Adibidez, maltera hizkuntza ofiziala da, baina 300.000 hiztun baino ez ditu. Aldiz, katalanak 7 milioi hiztun ditu; maltera, eslobakiera, daniera, finlandiera, lituaniera, letoniera, esloveniera, estoniera baino hiztun gehiago, baina ez da ofiziala EBn eta hizkuntza gutxitutzat hartzen da.

Katalanek behin eta berriz aldarrikatu dute euren hizkuntzak Europan tokia izan behar duela. Esaterako, Kataluniako Parlamentuaren 113/88 eskaeran eta Balear Uharteetako Parlamentuaren 161/89 eskaeran katalana Europako hizkuntza ofizial izendatzeko eskatzen zen. Europako Parlamentuak, 1990eko abenduaren 11ko Reding ebazpenean, uko egin zion hizkuntza ofizial izendatzeari, baina Kontseiluari eta Batzordeari katalanaren aldeko honako neurri hauek hartzeko galdegin zien:

- EBko tratatuak eta oinarrizko agiriak katalanez ere argitaratzeko.
- Europako Erakundeei buruzko informazio publikoa katalanez ere argitaratzeko.
- Hizkuntzak ikasteko Batzordeak abian jartzen dituen programetan katalana ere sartzeko.

-Publikoarekiko ahozko eta idatzizko harremanetan katalana erabiltzeko, EBk Katalunian eta Balear Uharteetan dituen bulegoetan.

Balio sinboliko handia du ebazpenak, eta beste hizkuntzentzat aurrekari garrantzitsua izan daiteke, baina neurri gehien-gehienak ez dira bete (batez ere, hezkuntza-arlokoak).

Hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen auziaz ari garela, Espainiar Estatu erkidego autonomoetan ofizial diren hizkuntzen gainean zehaztaper bat egin behar da. Esan bezala, Europako erakundeetan hizkuntza ofizial eta lan-hizkuntza bihurtzeko irizpidea estatu batean edo gehiagotan ofizialtzat onartuta egotea da. Ez da inon aipatzen, ordea, Batasuneko estatu baten lurralde osoan ofizial izan behar duenik, eta, beraz, araudiak ez du inolako eragozpenik jartzen Batasuneko estatu bateko zati batean hizkuntza ofiziala den hizkuntza Europa mailan hizkuntza ofizialtzat onartzeko.

Interpretazio hori murriztailea da, segurtasun legalaren interpretazio bitxi baten ondorioz sortua. Miquell Strubell eta Isidor Marí katalanek ezin hobeto azaltzen dute interpretazio honen oinarria:

“Egia da, legedi europarra hiritar guztiei ezartzekoa denez, segurtasun legalaren printzipioak eta arauen publikotasunaren printzipioak beharrezko egiten dute arauak hiritarrek ezagutzen duten hizkuntza batean eskura egotea. Beraz, hiritar guztien segurtasun legala ziurtatzeko **nahikoa** da Europako legedia indarrean jartzea Batasuneko estatu bakoitzeko lurralde osoan ofiziala den edozein hizkuntzatan, baina horretarako ahalik eta hizkuntza gutxien erabilita.

Hala eta guztiz ere, hizkuntza ofizialen **gutxieneko kopurua** zehazteko baliagarria izan daitekeen **nahikotasun printzipio** hau, muturreraino eraman eta **baztertze printzipio** bihurtu dute, eta onargarria den hizkuntza ofizialen **gehienezko kopurua** finkatzeko erabiltzen dute”.²

Beraz, ez dago euskarari, katalanari eta galegoari Europan ateak ixteko arrazoirik. Ildo horretatik, gero eta ozenagoak dira gizarte-eragileen aldarrikapenak, eta aurten alderdi politiko baten eskakizunak ere bazterrak nahasi ditu: PSOEren proposamenaz ari gara.

² Marí, I. eta Strubell M.: “Europar Batasunaren hizkuntza sistema: aurreikuspenak zabalkunde prozesuaren aurrean”. BAT aldizkaria, 44. Alea, 77-91 or.

5. ESPAINIAKO ALDERDI SOZIALISTAREN PROPOSAMENA

Espainiako Gobernuak Europar Batasuneko txosten ofizialak (tartean Konstituzioa) Europar Batasunean ez baina bertako herrialdeetan koofizialak diren hizkuntzetara itzultzeko eskatu zuen aurtengo maiatzean, bai eta Europako erakundeekiko harremana euskaraz, galegoz zein katalanez izateko aukera edukitzea ere. Alegia, funtsean, gaelikoaren estatus bera aldarrikatu du bere herrialdean koofizial diren hizkuntzentzat.

Eskaria maiatzaren 17 eta 19an eztabaidatu zuten EBko kideen atzerri ministroek Bruselan egin zuten bileran, eta, azkenean, neurri batean baino ez du aurrera egin: Europako Konstituzioa euskara, galego eta katalanera itzuliko da, estatu kide gehienen onarpenarekin, baina EBko herrialdeetan koofizialak diren hizkuntzetan mintzo diren herritarrek ez dute aukerarik izango Bruselako erakundeetan hizkuntza hori baliatzeko.

Espainiako Gobernuak egindako proposamena ez zuten gogo onez hartu estatu kide guztiek. Hain zuzen, Frantziak jarri dizkio oztoporik handienak. Michel Barnier Atzerri ministroak adierazi zuenez, une hartan, Europako Konstituzioa hitzartzeko negoziaketak amaitzear zeudela-eta, saihestu egin behar zen “arazo korapilatsuak” sortzea, eta, horregatik, hizkuntza-arazoaren gaineko eskariak egitean “kontu handia” izateko eskatu zien EBko kideei.

Aitzakiak aitzakia, ordea, garbi dago ezezkoaren arrazoia zein den: Espainiako Gobernuak egindako proposamenarekin Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituentzat ere ate bat irekiko ote den beldur da, eta horregatik agertu da European *hizkuntza gutxituak* ofizial izateko eskaeraren aurka. Izan ere, proposamenak aurrera eginez gero, EBk euskarari Frantziak berak aitortzen ez dion maila aitortuko lioke, eta agerian geratuko litzateke koherentzia eza. Horratx sakoneko arrazoia.

Zalantzarik ez da, beraz: Frantziak gutxiengoaren aurrean itsu eta gor jarraitzen du, jakobismoan errotuta. Ildo horretatik, oso esanguratsuak dira Jean Louis Davant euskaltzainaren hitzak:

“Michel Barnier ministroaren ezetzak ez nau harritzen. Frantziako Estatuaren aurpegi jakobinoa erakusten du bete-betean beste behin. Hizkuntza gutxituen etsai gogorrena da, demokrazien artean gehienik zapaltzen dituen, Turkiaren parean. Frantziak Europako arauak inposatu nahi dizkio Turkiari, baina aldi berean berak ez ditu arau horiek bete nahi. Eta orain Europako Batasunean bigarren mailako ofizialtasun bat ere ukatzen digu. Kataluniarrekin eta galiziarrekin batera, zinez deitoratu behar dugu, eta salatu, Frantziako buruzagien faxismo linguistikoa (...)”³

Gertuago etorrita, Eusko Jaurlaritzak euskara European aintzat hartzearen aldeko adierazpen instituzionala onartu zuen maiatzean. Bertan dio ezinbestekoa dela euskarari, katalanari eta galegoari European ere ofizialtasuna onartzea, eta aitortza horrek ezin duela mugatu lege testu baten (alegia, konstituzioaren) itzulpen hutsera.

³ BERRIA, 2004-05-12

Agiri horretan, Zapatero Espainiako presidenteari itxaropen faltsuak sortzea leporatu zion, hain zuzen, lege testu horren itzulpena baino ez zuelako lortuko, eta hori keinu sinboliko hutsa delako.

Eusko Jaurlaritzak berak ere nahikoa lan du etxean, ordea: Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planak 465 ataletatik 84 elebidun bihurtzea zuen helburu, eta bakar batean ere ez da bete xede hori. Horrez gain, administrazioko langileen ehuneko 14,5ek baino ez dute egiaztatuta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Datu larriak benetan, larriegiak beste inori kontuak eskatzeko.

Espainiar Estatuari dagokionez, berriz, oraingoan proposamen honekin badatorkigu ere, ezin esan hizkuntza gutxituen defendatzaile sutsu denik. Batetik, Espainiak Europako Hizkuntza Gutxituen Ituna sinatu (1992) eta berretsi (2001) egin zuen, hau da, betetzeko konpromisoa hartu zuen, baina ez ditu bete itunaren funtsa finkatzen duten puntuak ere. Bestetik, estatuko erakundeetan hizkuntza koofizialek ez dute lekurik. Espainiako Senatuko presidente Javier Rojok adierazi zuen, legegintzaldi honetako ekimenen artean, Senatuan erkidegoetako hizkuntzek lekua izan dezaten arduratuko dela, baina oraingoz gaztelania da estatuko erakundeetako hizkuntza ofizial bakarra. Hara hor estatuko eta nazioarteko erakundeen arteko alde nabarmena. Hara hor estatuen kanpo- eta barne-politikaren arteko jauzi nabarmena.

6. ESTATUEN KONTRAESANA

Gaur egun, berrehun bat estatu daude munduan eta sei mila hizkuntza inguru. Beraz, estatuena izaera elebakarretik abiatutako hurbilketa ez da baliagarria. Dena den, ikuspegi hori nagusitu da estatu-nazioaren eraikuntzan, estatu elebakar eta monokulturalarena, homogeneitaterik gabe komunitate politikorik ez dagoela sinetsita.

Europako eraikuntzaren protagonistak estatuak izan dira, eta horrek isla garbia du hizkuntzen auzian. Gutxiengo izatea egokitu zaienean, formula berrien bila jo dute estatuak, eta eleaniztasun integralaren bidea hautatu dute, hizkuntz aniztasunaren onurak aldarrikatuta. Honakoa da galdera: Europaren estatu-hizkuntza guztiek eskubide berberak izan behar badituzte, zergatik ez da planteamendu bera egiten estatuaren mugen barruan estatu-hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen artean? Hizkuntz aniztasuna ez ote da hain aberasgarria estatuaren mugen barruan? Zergatik ez da aplikatzen politika bera estatuaren barruan, kontuan izanda askoz bideragarriagoa dela? Ala berdintasun-doktrina hori eta hizkuntza eskubideak estatu hizkuntzei bakarrei dagozkie? Ente politikorik izan ezean, ez ote dago hizkuntza-eskubiderik?

Estatuak ez dute onartzen horrelako paralelismorik egiterik, eta barne-arrazoiak, subiranotasuna eta estatuaren batasuna eta segurtasuna bezalako argudioak erabiltzen dituzte ihesbide gisa.

Kontraesana nabarmena eta larria da benetan: Europako erakundeak eleaniztasunak dira, eta hizkuntz aniztasunaren aldekoak, aniztasun hori Europaren funtsezko ezaugarrietako bat delako. Estatu-nazioaren atzean, aldiz, tradizio eta bokazio elebakar sutsua dago gehienetan.

Baina ez gaitezen tranpan eror, estatuak Europako erakundeetan egiten duten hizkuntz aniztasunaren defentsa bat dator-eta tradizio elebakar horrekin. Izan ere, nahiz eta Europak hizkuntza-unibertso aberats eta askotarikoa izan, “estatu-hizkuntzez” haratago doana, eta Europaren egituraketa politikoan oso kontuan hartu beharrekoa, zoritxarrez, Europaren eraikuntza ekonomiko eta politikoa “estatu-hizkuntza” kontzeptuan oinarritu da, eta horrek –besterik sinestarazi nahi badute ere– eragin negatiboa du Europako hizkuntz aniztasunean, hizkuntza ez-ofizialei bizkar ematen dielako.

Kultur eta hizkuntz aniztasunaren aberastasuna goraiatu bai, demokrazia linguistikoa aldarrikatu bai, baina betiere estatu-hizkuntzetara mugatuta. Hor dago kontraesana: ezin da hizkuntz aniztasunaren defendatzaile gisa agertu, estatu elebakarren ikuspegitik abiatuta. EBren aniztasuna defendatzen da, baina ahaztu egiten da estatu bakoitza ere anitza dela.

“La caracterización jurídica del régimen lingüístico europeo se articula a partir de una concepción de monolingüismo estatal. El régimen institucional de las lenguas queda limitado a las lenguas de Estado, produciendo un primer nivel de jerarquía entre las lenguas europeas. A las lenguas oficiales en parte de un Estado, que no

lo sean, a su vez, del conjunto del territorio de otro Estado miembro no les ha sido reconocido estatus oficial alguno”.⁴

Beraz, aniztasunaz ari garenean, argitu egin beharko da zertaz ari garen, estatu-hizkuntzez ala estatu horietan dauden hizkuntz komunitateen aniztasunaz. Argitu egin beharko da, halaber, hizkuntz aniztasuna estatuaren mugen barruan estatuaz haraindi bezain irmo defendatzeko prest gauden. Zeintzuk dira, baina, aniztasun horren osagaiak?

⁴ Urrutia Libarona, Iñigo: “Régimen jurídico de las lenguas y reconocimiento de la diversidad lingüística en la Constitución Europea”, in *II Simposi Internacional Mercator: Europa 2004: Un nou marc per a totes les llengües?*, <http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

7. EUROPAKO HIZKUNTZ MOSAIKOA: ESTATU-HIZKUNTZAK, HIZKUNTZA GUTXITUAK ETA IMMIGRANTEEN HIZKUNTZAK

Gaur egun 25 kide ditu Europar Batasunak, merkatu, moneta eta erakunde komunekin, baina aniztasun kultural eta linguistiko handiarekin: eleaniztasun integralaren printzipioari jarraituz, hoguei hizkuntza ofizial ditu EBk. Dena den, Europako hizkuntz aniztasuna ez da mugatzen hizkuntza ofizialetara. Hori da EBren dilema: alde batetik, eleaniztasuna defendatzen du, eta hizkuntz aniztasunari eusteko apustu egin duela dio, Europaren kultur ondarea delako; bestetik, ordea, EBk hizkuntza ofizialekin parekatu du Europako hizkuntz aniztasuna, bai lan-hizkuntzak finkatzeko orduan, bai hizkuntzen ezagutza bultzatzeko orduan.

Ezin ditugu hizkuntza gutxituak edo erregionalak ahaztu, ordea. Europar Batasuneko estatu kideen barruan hitz egiten diren eta estatu horietako hizkuntza ofizial ez diren hizkuntza autoktonoak. Horixe da Europar Batasunean hizkuntza gutxituen definizioa, eta 40 milioi baino gehiago dira hizkuntza horietan mintzo diren europarrak.

Hizkuntza horiek oso egoera desberdinetan daude, bai hiztun-kopuruari dagokionez, bai estatuaren aldetik duten errekonozimendu aldetik ere. Miquel Siguaneke Europako estatuen honako sailkapena egiten du, gutxiengoekin duten harremanaren arabera:

-Herrialde elebakarrak: hizkuntza nazional bakarra aitortzen dute, eta hizkuntza hori soilik defendatzen dute, hizkuntza gutxituak badirela onartu ere egin gabe. Frantzia, Portugal.

-Hizkuntza gutxitu batzuk babesten dituzten estatuak: hizkuntza nazional bakarra dute. Onura legal batzuk eskaintzen dizkiete hizkuntza gutxituei, baina ez eskubide politikoak. Adibidez, Erresuma Batuan galesa edo Herbereetan frisia.

-Autonomia linguistikoak dituzten estatuak: estau-hizkuntza bakarra dute, baina hizkuntza propioa duten lurraldeei autonomia ematen die, eskubide politikoak eta koofizialtasuna aitortzen die, bai eta hizkuntza-politika ezartzeko eskumena ere. Adibiderik argiena Espainia da, eta, zenbait lurraldetan, Italia. Aipagarria da lurraldearen zati batean ofizial diren hizkuntzak (katalana, euskara, galegoa) hizkuntza erregional eta gutxitutzat hartzen direla.

-Linguistikoki federalak diren herriak: Unitate federal bakoitzak bere hizkuntza eta bere hizkuntza-politika ditu. Belgika, Suitza.

-Instituzionalki eleanitzak diren estatuak: bi edo hiru estatu-hizkuntza dituzte, eta neurriak hartzen dira guztiak estatu osoan ezagutu eta erabil daitezzen. Kasurik argienak Finlandia (finlandiera eta suediera) eta Luxenburgoko (frantsesa, alemana eta luxenburgera) dira.

Europaren jatorrizko aniztasunari, hizkuntz mosaikoa are gehiago zabaltzen duen faktore bat gehitu behar zaio, aberasgarria baina, aldi berean, arazotsua:

immigrazioa. Fenomeno honek hizkuntzen arloan duen eragin itzelaz ohartzeko, datu bat: gaur egun Europan turkierak eta arabierak hiztun gehiago dituzte estatu-hizkuntza batzuek baino: 1994an, turkierak 1.500.000 hiztun zituen Europan eta arabierak 1.100.000, eta azken urteotan kopuru horrek gora egin du.⁵

Jatorriz europarrak ez diren hizkuntz komunitate batzuek hizkuntz komunitate tradizional batzuk baino hiztun gehiago dituztela kontuan hartuta, Europako gizarte kulturantzera gehitzen ari diren hizkuntzek estatuko edo Europako imaginario komuneke zati izateko aukera eduki behar dute.

Azken batean, hizkuntza gutxituen kontzeptuari ikuspegi dinamiko batetik begiratu behar zaio, eta hizkuntz aniztasunaren defentsa hizkuntza hauetara ere hedatu behar da. Herrialde hartzailearen hizkuntzaz eta kulturaz jabetzeko aukera izan behar dute, baina euren kulturari eta hizkuntzari uko egin gabe eta jatorrizko hizkuntza ikasi eta mantentzeko duten eskubidea aitortuta. Europako Parlamentuak egoera horrekiko kezka adierazi du, baina hizkuntza gutxituen eta erregionalen kasuan ere askotan gertatu den bezala, Batzordeak ez du inolako neurririk hartu.

Hari horri tira eginda, ikus dezagun lehendabizi Europar Batasuneko erakunde garrantzitsuenen hizkuntza-irizpideak zeintzuk diren, eta, ondoren, bakoitzak zer egin duen hizkuntza gutxitu eta erregionalak sustatzeko.

⁵ Immigranteen egoera sozial arazotsua dela-eta, zifra horiek hurbilpen bat baino ez dira, inondik ere ez datu zehatzak.

8. EUROPAR BATASUNA ETA HIZKUNTZEN EREMUA

Hasiera batean horretarako asmorik ez bazegoen ere, hizkuntza-politika bat finkatzeko ekimenak eta erabakiak hartu behar izan dituzte EBko erakundeek, nahiz eta hizkuntza-politkarik ez den inoiz formulatu esplizituki. Lau maila bereiz daitezke ekimen eta irizpide horietan:

- Hizkuntza-auziak, EBren printzipio orokorrekin lotuta.
- Zuzenean edo zeharka hizkuntzen ezagutza edo erabilerarekin lotzen diren programa eta ekimenak.
- Erakundeen funtzionamendua, hizkuntzei dagokienez.
- Erakundeek hizkuntza gutxituen eta erregionalen alde egindako lana.

8.1 *Hizkuntza-auziak, EBren printzipio orokorrekin lotuta.*

1.- **Diskriminazio ezaren printzipioa:** Erromako Itunean diskriminazio ezaren printzipioa jasotzen da, aukera-berdintasunaren berme gisa. Gaitzesten diren diskriminazio-arrazoen artean, hizkuntzarena arbuiatzen da esplizituki.

Formulazio orokorra egitea erraza da; ez, ordea, diskriminazio ezaren printzipiotik zein eskubide eratortzen diren zehaztea. Bide horretan egindako ahalegin bakarra Europako Kontseiluaren eskutik etorri da: 1992an, Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna onartu zuen, eta gutun horretan estatuek gutxiengo linguistikoaren eskubideak zaintzeko dituzten betebeharren multzoa jasotzen da. Betebeharrak jaso bai, baina ez du zehazten zein hizkuntza gutxituri aplikatu behar zaizkion. Estatuaren beraren esku geratzen da nori eta nola aplikatu erabakitzea, eta, ondorioz, nahiko sinbolikoa da.

Beraz, giza eskubideek eta diskriminaziorik ezaren printzipioek zein hizkuntz ondorio ekartzen dituzten zehaztu behar du EBk; alegia, hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak definitu behar ditu.

2.- **Pertsonen eta merkantzien zirkulazio askea:** Europar Batasunak ez du gaiaren inguruko irizpide zehatzik eman. Dena den, esan liteke herrialdeko hizkuntza ezagutzea betekizun orokorra izatearen aurkakoa dela, baina onartu duela hainbat lanpostutarako (batez ere, administrazio publikorako) ezinbesteko eskakizuna dela.

Merkantziei dagokienez, zein hizkuntzatan izan behar dituzte argibideak? Zenbateraino exiji daiteke argibideek kontsumitzaileentzat ulergarri izan behar dutela, eta, beraz, produktua saltzen den herrialdeko hizkuntzan eman behar direla, nahiz eta produktua beste herrialde batean egin? Gai horren inguruan ere sortu dira arazoak, eta Europako Auzitegira ere iritsi dira hainbat afera. Dena den, EBk ez du irizpiderik zehaztu. Arlo horretan egiteko garrantzitsua du,

hain zuzen: jurisprudenzia sistematizatu beharko luke, Batasuneko hiritar guztien hizkuntz eskubide eta betebeharrak biltzen dituen kode baten bidez.

3.- Diru-laguntzak ikus-entzunezko produktuentzat: Estatu askok, bertako hizkuntzan egindako ikus-entzunezko materialak sustatzeko, diru-laguntzak ematen dituzte. Frantziak, gainera, proposatu du merkataritza-askatasunari “salbuespen kulturala” ezartzea, ikus-entzunezkoetan atzerriko hizkuntzaren (bistan da, ingelesaren) presentzia mugatzeko. “Salbuespen kultural” hori inbasio anglosaxoiaren aurrean Europaren aniztasuna defendatzeko modu bat da, baina, aldi berean, EBk defendatzen duen merkataritza-askatasunaren printzipioaren aurkakoa da.

8.2 Zuzenean edo zeharka hizkuntzen ezagutza edo erabilerarekin lotzen diren programa eta ekimenak.

Erromako Itunak ez zuen hizkuntza arloan helbururik ezarri, ez eta hezkuntzan ere. Maastricht-eko Itunak, ordea, apurtu egingo du tradizio hori, eta baieztatuko du Europako herrialdeetako hezkuntza-sistemek kultura europar komuna sortzen lagundu behar dutela. Itunak abiatutako bide berritik, zabaldu egingo dira hezkuntzarekin lotutako helburuak. Ildo horretatik, Europako Batzordeak nolabait hizkuntzekin lotutako programak jarri ditu abian, batzuetan itzulpena errazteko (Syntram aplikazioa, Eurotra itzulpen-sistema, Eurodicautom datu-banku terminologikoa), beste batzuetan hizkuntzak ikasi eta zabaltzeko, ezinbesteko faktorea baita Europaren eraikuntzan (Socrates programa eta horren barruan Lingua, Leonardo eta Erasmus).

8.3 Europako erakundeen hizkuntza irizpideak

Ministroen Kontseiluak 1958ko apirilean onartutako lehen xedapenaren 6. eta 7. artikuluetan Batasuneko erakundeei eskumena ematen zaie bere prozedura arauetan auzi bakoitzean zein hizkuntza erabili erabakitzeko. Hona hemen erakunde bakoitzaren barne-funtzionamendua hizkuntzari dagokionez.

8.3.1 Justizia Auzitegia

Justizia Auzitegiari zuzentzeko, edozein hizkuntza ofizial balia daiteke, gaelikoa barne, eta eskaera egin den hizkuntza horretan gauzatzen da prozedura guztia. Prozesuan beharrezkoak diren dokumentuak hizkuntza horretan ez badaude, itzuli egiten dira. Sententziak EBko hizkuntza ofizial guztietara itzultzen dira, baina barne-funtzionamendua frantsesez gauzatzen da ia erabat.

8.3.2 Ministroen Kontseilua

Hizkuntza ofizialak lan-hizkuntza dira osoko bilkuretan, baina bilera informalean normalean hiru hizkuntza erabiltzen dira: ingelesa, frantsesa eta alemana, edo ingelesa, frantsesa eta sei hilabete horretan presidentzia duen estatuaren hizkuntza ofiziala. Administrazio-lanetan (ez nolanhikoak, gainera, itzultzaile eta guzti 10.000 funtzionariotik gora ditu-eta erakunde honek), berriz, ingelesa eta frantsesa erabiltzen dira eskuarki.

8.3.3 Europako Parlamentua

Osoko bilkuretan, interbentzioak hizkuntza ofizial guztietara itzultzen dira, bai eta hartutako erabakiak ere. Baina Parlamentuaren barruko administrazio-lanei dagokienez, neurri handi batean frantsesez eta ingelesez egiten dira.

8.3.4 Europako Batzordea

Honakoa da bere hizkuntza-erregimena: gai bat aztertzen hastean, prozedura-hizkuntza aukeratzen da. Hizkuntza horretan idazten dira hasierako proposamenak eta proposamen horiei egindako zuzenketa eta iradokizunak. Baina azken proposamena eta proposamen horren oinarrian dauden dokumentu guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzultzen dira, komisarioen bileran eztabaidatu aurretik. Normalean frantsesa eta ingelesa izaten dira prozedura-hizkuntza, eta batzuetan alemana.

Batzordea estatu batekin zuzenean harremanetan jartzen denean, estatuaren hizkuntza baliatzen du. Ondoren, estatuarengandik jasotzen duen eskaera edo informazioa prozedura-hizkuntza batera itzultzen da; gaia hizkuntza horretan jorratzen da, eta, ebazpena lortzen denean, ebazpena eta hori justifikatzen duten argudioak estatuaren hizkuntzara itzultzen dira.

8.3.5 Europako Kontseilua

Bi hizkuntza ofizial ditu: ingelesa eta frantsesa. Oso kritikatu izan da Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna bultzatu zuen erakundeak bi hizkuntza ofizial baino ez izatea, baina ezin da ahaztu erakunde honek lan esanguratsua egin duela hizkuntz aniztasunaren alde.

8.4 EUROPAKO ERAKUNDEEK HIZKUNTZA GUTXITUEN ETA ERREGIONALEN ALDE EGINDAKO LANA

Europar Batasunak hasieratik baieztatu du Europako kultur eta hizkuntz aniztasuna errespetatzen dituela, eta, hortik bere lema: Batasuna aniztasunean. Erronka nagusia: Europako herrien arteko elkartasuna sustatzea, baina

hizkuntz eta kultur aniztasuna mantenduz. Aurretik esan bezala, aniztasuna estatu-hizkuntzetara mugatu da gehientsuenetan, baina izan dira hizkuntza gutxitu eta erregionalak kontuan hartu dituen ekimenik ere. Hona hemen erakunde bakoitzak gauzatutako ahalegina.

8.4.1 Europako Kontseilua

Giza eskubideen eta sistema demokratikoaren defendatzaile den aldetik, ez da harrizkoa bera izatea gutxiengo linguistikoen gaia aztertu duen Europako lehenengo erakundea.

60 eta 70eko hamarkadetan Europako gobernuek eta hiritarrek Europako hizkuntz aniztasunarekiko zuten kontzientzia handitzen saiatu zen, eta gomendio ugari onartu zituen. Aipagarrienak, hauexek:

285. gomendia (1961): gutxiengo nazionalen eskubide kolektiboak bete egin beharko lirakeela adierazten du, baldin eta Estatuaren oinarriko interesekin bateragarriak baldin badira.

814. gomendia (1977): Europako hizkuntza biziei buruzkoa da. Bertan jasotzen denez, hizkuntz aniztasuna aberastasun ordezkazina da, eta horrek justifikatzen du Europako gutxiengo linguistikoak babesteko ahalegin aktiboa.

80ko hamarkadan gutxiengo etniko eta linguistikoen baluartetako bat bihurtu zen Europako Kontseilua, eta agiri garrantzitsu batekin abiatu zuen hamarkada: 1981ean Cirici Txostena onartu zuen, Europako Kontseiluak hizkuntza gutxituen alde egindako lanaren eta onartutako deklarazioen abiapuntu eta oinarri ideologiko-pragmatikoa den txostena. Lau puntu nagusi jasotzen ditu:

- a) Arlo zientifikoan, tokiko toponimia errespetatu egin behar da.
- b) Arlo humanoan, haur guztiek ama-hizkuntzan eskolatzeko eskubidea dute.
- c) Arlo kulturean, hizkuntza-komunitateek euren hizkuntza eta kultura normaltasunez garatzeko eskubide dute. Normalizazio horretan, komunikabideak eta goi mailako irakaskuntza ere aintzat hartu behar dira.
- d) Arlo politikoan, estatuaren barruan egitura administratibo propioa duten komunitateek euren hizkuntza koofizial deklaratu dadin exijitzeko eskubidea dute.

Europako Kontseiluko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak aho batez onartu zuen ebazpena 1981ean, eta Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrera bidali zen. Parlamentuak ere oniritzia eman zion urte hartan bertan, eta, hala, abstentzio bakarrarekin, 928. gomendio bihurtu zen. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, ordea, "aparkatuta" utzi zuen, hizkuntza-politika estatu bakoitzaren kontua zela, eta, beraz, ez zuela arteztarau bihurtu behar argudiatuta.

Cirici Txostenaz gain, bada Europako Kontseiluak aurrera eramandako ekimen zinez garrantzitsu bat: **Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Gutuna**, hain zuzen ere. Premiazkotzat jo zen Europako hizkuntza gutxitu eta erregionalen defentsa eta babesa bermatzeko bitarteko juridiko bat lantzea, eta hortik sortu zen gutuna.

“Les parts es comprometen a eliminar, si encara no ho han fet, tota discriminació, exclusió, restricció o preferència injustificada que afectin l’ús d’una llengua regional o minoritària i tinguin per objecte descoratjar o posar en perill el seu manteniment o el seu desenvolupament”.⁶

Frantzia izan zen gutunaren aurka egin zuen estatuetakoa bat. Marín Gonzálezek bere tesian ezin hobeto azaltzen du zergatia:

“La idea de unión europea debería tender hacia la uniformidad y la homogeneidad en vez de la dispersión y la diversidad, sostuvo el francés Sergent. (...) los europeos tenían que fomentar una gran lengua común a todos y no perder el tiempo multiplicando, favoreciendo, promocionando y salvando o recuperando lenguas a punto de desaparecer por imperativo de la historia (Mr. Nungesser, francés)”.⁷

Azkenean, zirriborroari aldaketa ugari egin, edukia leundu (esaterako, hasieran estatuiek derrigor bete beharreko hainbat neurri hautazko bihurtu ziren behin betiko bertsioan), hainbat aldiz atzera bota, eta traba asko gaudituz ondoren, 1992an onartu zen Gutuna. Frantzia, Erresuma Batua, Txipre eta Turkia abstenitu egin ziren, eta Greziak kontra bozkatu zuen. Bulgariako ordezkaria, berriz, ez zen bozketan izan.

1992ko azaroaren 5ean 11 estatuk sinatu zuten gutuna Estrasburgon: Austria, Danimarka, Finlandia, Alemania, Hungria, Liechtenstein, Luxemburgo, Malta, Herbeereak, Norvegia eta Espainiak.

Egun, 2004ra arte, 18 herrialdek sinatu eta berretsi dute: Austria, Alemania, Kroazia, Txipre, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Finlandia, Holanda, Hungaria, Liechtenstein, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Errumania, Mazedonia, Suitza eta Ukrainiak. Beste 13k sinatu dute, baina oraindik ez dute berretsi.

Gutunean oso argi azaltzen da ezingo duela Estatuaren lurralde-batasunaren printzipioaren aurka jo, eta horrek ederki erakusten du hizkuntzen auziak estatuari zer-nolako beldurra ematen dion. Halaber, lehenengo artikuluan, hizkuntza gutxituen eta erregionalen definizioa egiteaz gain, argi eta garbi azaltzen da gutun horrek ez dituela aintzat hartzen ez dialektoak, ez immigranteen hizkuntzak.

“Regional or minority languages that are: (i) traditionally used within a given territory of a State by nationals of that State who form a group numerically smaller than the rest of the State’s population; and (ii) different from the official language(s) of that State; it does not include either dialects of the official language(s) of the State or the languages of migrants”.⁸

⁶ Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Gutuna, 1992.

⁷ Marín González, Gelu: “Atlas de Europa: La Europa de las lenguas, la Europa de las naciones”. Fundamentos (2000), 205. orrialdea. Doktorego-tesia.

⁸ Hizkuntza Gutxituen edo Erregionalen Europako Gutuna, 1. artikulua

Estatuak berak erabakitzen du zein hizkuntzari aplikatu eta bakoitzari zer-nolako babesa eman. Edukiak betetzeko konpromisoa hartzeaz gain, kanpo-kontrola ere onartzen dute estatuak: hiru urtean behin, gutuna sinatu eta berretsi duen estatuak txosten bat aurkeztu behar du Europako Kontseiluan, konpromisoen betetze-maila zenbatekoa izan den ikusteko, eta Estatuak onartu dituen Itunaren III. zatiko erabakiak ezartze bidean eraman duen politika azaltzeko. Txosten hori aditu-talde independente batek aztertzen du, eta txostenean bildutakoaz eta bestelako informazioaz baliatuta (erakunde eta elkarteek Adituen Lantaldeari oharrak egiteko eskubidea dute), oharrak eta gomendioak egiten dizkio estatuari.

Espainiako estatuak 2002ko irailaren 23an aurkeztu zuen bere txostena, eta aurtengo maiatzean Hizkuntza Gutxituen Itunaren jarraipen-batzordea Hego Euskal Herrian izan da, Espainiak 2001ean berretsi zuen Ituna betetzen ari den jakiteko.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak informazioa helarazi dio Adituen Lantandeari, Ministroen Kontseiluari bidaliko dion txostena egiteko orduan kontuan har dezan. Bertan salatu du Espainiak ez duela bete Ituna, eta EAEn eta Nafarroan euskal hiztunekin gertatzen diren eskubide-urraketa guztiak jasotzen ditu. Beste hainbat erakundek Europako Kontseiluari aurkeztu dizkioten txostenetan ere behin eta berriro salatzen da Espainiak etengabe urratzen dituela euskaldunon hizkuntza-eskubideak.

Frantziak, berriz, ez du gutuna izenpetu ere egin, konstituzioaren aurkakoa dela argudiatuta. Izan ere, konstituzioak argi uzten du Frantziako Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa dela.

8.4.2 Ministroen Kontseilua

Ministroen Kontseiluan estatu kide bakoitzeko gobernuak daude ordezkaturik, eta, beraz, herrialdeko alderdi handiek soilik dute ordezkaritza. Horiek, askotan, ez dira gutxiengo linguistikoen aldarrikapenen aldekoak, eta ez dago erakundearen jardunari begiratu besterik hori baieztatzeko: Ministroen Kontseiluak arlo honetan egindako lana hutsaren hurrengoa da, ez du inolako proposamenik egin hizkuntza erregional eta gutxituen arloan. Gainera, erakunde hau da hizkuntza ofizialen eta lan-hizkuntzen arteko identifikazioa tinkoen defendatzen duena.

EBko erakunde gorenak hizkuntza erregional eta gutxituen auzia aintzat ez hartzeak argi erakusten du gaia erabakiguneetatik kanpo eztabaidatzen dela, eta, beraz, tamalez, maila sinbolikora mugatzen dela gehien-gehienetan.

8.4.3 Europako Parlamentua

Europako Parlamentuak ere kontu handiz zaintzen du hizkuntza ofizialen eta lan-hizkuntzen arteko parekotasuna, diputatu guztiek euren hizkuntzan espresatzeko eskubidea izan dezaten.

Baina, aldi berean, Europako Parlamentuan sortu da hizkuntza gutxituetako hitunen eskubideak defendatzeko kezka eta interes handiena, eta ez da harritzekoa; izan ere, erakunde horretan estatu bakoitzeko biztanleria guztiaren ordezkariak daude, horien artean baita gutxiengoan aldeko alderdi politikoetako ordezkariak ere.

Europako Parlamentuak hizkuntza gutxituen alde egindako lana oso kontuan hartzekoa da, ildo horretatik ebazpen asko onartu ditu eta. Politika eta hizkuntza bereizteko ahalegina egin du, eta, horregatik, "gutxiengoak" edo "talde etnikoak" bezalako terminoak oso gutxitan agertzen dira bere idatzietan, eta horrela egin dute aurrera hainbat dokumentu garrantzitsuk.

Dena den, argi utzi behar da Europako Parlamentuak ez duela eskumen legegilerik, aholku-emailea baino ez da; Ministroen Kontseiluari (EBko botere gorena) eta Europako Batzordeari (organo betearazlea) gomendioak egitera mugatzen da. Halaber, Europako Parlamentuak onarturiko erabakiek ez daukate ondorio juridikorik estatu kideengan, eta, horregatik, ebazpenen eraginkortasuna benetan eskasa da.

Zalantzarik gabe, ordea, ebazpenok aurrerapauso garrantzitsu izan dira hizkuntza gutxitu eta erregionalen sustapenean. Hona hemen kronologia:

-Arfe ebazpena (1981): Lehenengo eskaera-sortan, Estatuko gobernuei eta agente erregionaleri galdegiten die hizkuntza gutxituen aldeko politika gauzatzeko hezkuntzan, komunikabideetan, bitzita publikoan eta gizarte-gaietan.

Bigarren eskaera-sortan, besteak beste, hezkuntza eleanitzaren proiektu pilotuak abiarazteko eskatzen dio Europako Batzordeari, bai eta hizkuntza gutxituak baztertzen dituen legeak eta jokabideak aztertzeke ere. Bitxia da: "Hizkuntza eta kultura erregionalen eta gutxiengo etnikoen eskubideen gutuna" izena zuen ebazpenak, baina testuan ez da *gutuna* aipatu ere egiten, zirriborrotik azken bertsiora aldaketa asko izan zituen eta. Nolanahi ere, gaiarekiko lehenengo hurbilpena izan zen, eta 1992an Europako Batzordeak onartuko zuen Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Gutunaren oinarria.

-Arfe ebazpena (1983): Ebazpenak jasotzen du 30 milioi lagun inguruk hizkuntza erregional edo gutxitu bat hitz egiten duela. Gaur egun, zabalkundearekin, kopuru horrek gora egin du: 40 milioi lagun dira eskuarki hizkuntza erregional edo gutxitu batean mintzo direnak, EBko biztanleriaren %10 inguru.

Aurreko ebazpenaren ildo beretik jotzen du. 1981ean bezala, Europako Batzordeari eskatzen dio proiektu pilotuak martxan jar ditzala; era berean,

Batasunean eta estatuetan indarrean zeuden eta hizkuntza gutxiak diskriminatzen zituzten legeak eta praktikak berrikusi, eta horiei amaiera emateko bitartekoak jartzeko galdegiten dio. Halaber, eskatzen dio parlamentuaren ebazpenaren printzipioak praktikan beteko direla bermatzeko.

-Kuijpers ebazpena (1987). Hizkuntza erregional eta gutxituen auzian berrikuntza garrantzitsu bat jasotzen du ebazpen honek: F puntuan, lehenengo aldiz adierazten da lurraldearen garapen ekonomikoa hizkuntzaren normalizaziorako funtsezko faktore dela:

“Las condiciones económicas regionales condicionan las posibilidades de expresión y desarrollo de las culturas locales, de modo que las medidas correspondientes se deben elaborar en el marco de una política regional, europea y equilibrada que parta de una base regional y que frene el éxodo de la periferia hacia el centro”.⁹

Gainerakoan, Arfe ebazpenen bidetik jotzen du, baina arlo bakoitzean hartu beharreko neurriak zehaztasun handiagoz azaltzen ditu. Sei paragrafotan, hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko hogeita lau neurri proposatzen dizkie estatuei: hezkuntza, administrazioa eta legedia, komunikabideak, kultur azpiegitura, neurri sozioekonomikoak eta azkenik, mugez haratagoko lankidetzak. Halaber, dei egiten dio Europako Batzordeari, neurri horien inplementazioa bultzatzea.

Dena den, oso esanguratsua da ebazpen honek 15. paragrafoan jasotzen duena:

“Stresses categorically that the recommendations contained in this resolution are not to be interpreted or implemented in such a way as to jeopardize, the territorial integrity or public order of the Member States”.¹⁰

Beraz, berriz ere agerian geratzen da Europako Parlamentuak ez duela botererik estatu kideekiko, eta hori da ebazpenaren alde ahula: eskakizunak oso zehatz adierazita daude, baina politikoki ez da errealista.

-Kililea ebazpena (1994): Berlingo harresia eraistea, SESB erortzea eta Balkanetako gerra piztea gutxiengoaren inguruko ikuspegia aldatzea ekarri zuen.

Mark Kilileak txostena egiteko hiru arrazoi eman zituen:

- a) Europa erdialdean eta ekialdean ordura arte zapalduta egon ziren nazio eta komunitate txikiak berpiztu egin ziren, eta gehienek hizkuntza eta kultur eskubideak aldarrikatzen zituzten. Bigarren mundu gerraren amaieran, gutxiengoekiko mesfindantza handia zegoen, eta Europan egonkortasuna ziurtatzeko modurik egokiena gutxiengoak gelditu edukitzea zela uste zen; nazio-estatuaren batasunari lehentasuna ematea

⁹ Kuijpers ebazpena (1987), F puntua.

¹⁰ Kuijpers ebazpena (1987), 15. Paragrafoa.

- erabaki zen. Harrezkero, ordea, ikuspegia aldatu egin da: Europa eleanitz batek bakarrik bidera ditzake balkanizatzeko joerak.
- b) Maastricht-eko Ituna: lehendabiziko aldiz EBko kultur eta hizkuntz aniztasuna onartzen du.
 - c) Ordurako Europako Kontseiluak onartua zuen Hizkuntza Erregional edo Gutxituen gutuna, eta 13 herrialdek sinatua zuten.

Kililea ebazpenak Estatu kideei gomendioak egiten dizkie, gutxiengoei euren egoera eta eskubideak definituko dizkien estatutu bat eman diezaien, batez ere hizkuntza gutxiuak hezkuntza-sisteman, komunikabideetan eta administrazio publikoan izan behar duen presentzia arautuko duena. Ebazpen horrek espreski onartzen du Europako Kontseiluak 1992an onartutako Europako Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna”, eta estatuei dei egiten die onartu eta berretsi dezaten. Ebazpen honek izan du eragin handiena Europako erakundeek hizkuntza eta kultura gutxitu eta erregionalei eman beharreko tratamenduan, eta esan daiteke aurreko ebazpenen edukia biltzen duela.

Bozketan, Frantziak eman zuen aurkako boto bakarra, agiri ofizialak eta administratiboak nazionala ez den hizkuntzetan egotea batasun nazionalarentzat mehatxu zela argudiatuta. Gainera, mugak ezabatu egin behar zirela adierazi zuen Frantziak, eta ez muga berriak sortu.

Ebazpenak berak jasotzen duen bezala, Europa ekialdeko eta erdialdeko gertakariak argi erakusten dute oso garrantzitsua dela gutxiengo kultural eta etnikoei euren kultur eta hizkuntz nortasuna garatzeko bitartekoak ematea, pertsona bakoitzak bere aspirazioak bake eta demokrazia testuinguruan gauzatzeko aukera izan dezan. Beraz, gutxiengoak babestea funtsezkoa da egonkortasuna, segurtasuna, bakea eta kulturen eta herrien arteko elkarbizitza erdiesteko. Hori da ebazpen honen ekarpen garrantzitsuetako bat.

Ebazpen honek badu beste berrikuntza bat ere: Europako Batzordeari eta Ministroen Kontseiluari hainbat neurri har ditzaten eskatzen die, baina ez lurraldeko hizkuntza gutxituentzat soilik, bai eta lurralderik gabeko hizkuntza autoktonoentzat ere (gitanoa, sintia, hebreoa...).

-1994 eta 1999 epealdia: Europako Parlamentuak ez zuen hizkuntza erregional edo gutxituei buruzko ebazpenik onartu, baina gaia hainbat aldiz eztabaidatu zen, eta hainbat dokumentutan jaso izan dira aipamenak.

-Morgan ebazpena (2001): Bertan jasotzen da hizkuntza guztiek balio bera dutela, eta EBn 40 milioi lagun inguru hizkuntza gutxitu batean mintzo direla. Halaber, hizkuntz aniztasuna eta hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko neurriak proposatzeko eskatzen dio Batzordeari, bai eta hizkuntza gutxitu eta erregionalei zabalik egongo den urte anitzeko hizkuntz programa bultzatzeko ere. Azkenik, Europako Gutuna sinatu eta berresteko eskatzen die estatuei.

-Michl Ebner-ek proposatutako ebazpena (2003): Aurreko ebazpenetan jasotako eskakizunak biltzen ditu, eta, horiez gain, bi hauek eransten ditu: batetik, Hizkuntz Aniztasunerako eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Europako Agentzia sortzea, betiere hizkuntza erregionalak eta gutxituak kontuan izanda, eta, bestetik, hizkuntz aniztasunerako eta hizkuntzen ikaskuntzarako urte anitzeko programa sortzea.

Halaber, Batzordeari eskatzen dio hizkuntza gutxituak eta erregionalak kultur eta hezkuntza programetan, egiturazko fondoetan eta diskriminazioa gainditzeko neurrietan sartzeko, gutxiengoak babesteko eta EBLUL sustatzeko.

Ebazpen horiek inpaktu politiko handia izan dute, baina ondorio legal gutxi. Identitate nazionalaren alderdi garrantzitsu denez, estatuak hizkuntza eta kultura arloko eskumena aldarrikatzen jarraitzen dute, eta horren aurrean zirrikitu txikia geratzen zaio Europako Parlamentuari.

8.4.4 Europako Batzordea

EBko erakunde betearazlea da, eta Europako Parlamentuaren ekimenak babestu izan ditu. Alde batetik, hizkuntza gutxitu eta erregionalen inguruko azterketak egin izan ditu, eta, bestetik, Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoa (EBLUL) finantziatu du.

Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoa gobernuaz kanpoko erakunde independentea da, eta harreman formalizatuak ditu Europako Parlamentu, Europako Batzorde, UNESCO eta Nazio Batuekin. EBko estatu kideetan ofizial ez diren hizkuntzak (gaelikoa barne) babestu eta sustatzea du helburu, Europar Batasunean hizkuntza eta kultur aniztasuna sustatzea, alegia.

Sortu zenetik, hizkuntza horien eta euren hizkuntza komunitateen egoera eta arazoak aztertu eta ezagutzera ematea izan da EBLULen helburua. Azken urteotan, gutxiengo linguistikoei eragiten dieten gaien inguruko datu-bankuak eta informazio-zentroak ezarri ditu: Mercator proiektuaz ari gara. Gaur egun, lau gune ditu, eta bakoitza gai batez arduratzen da: hezkuntza (Frisia), komunikabideak (Gales), zuzenbidea (Bartzelona) eta gai orokorrak (Paris).

EBLULen lana aholku ematera mugatzen da. Bi funtzio betetzen ditu: batetik, hizkuntza gutxituen arteko hartu-emana sustatzen ahalegintzen da (informazioa eta esperientziak trukatu, bisitak...). Bestetik, Europan hizkuntzen inguruan garatzen ari diren programei jarraipena egiten die, eta haien inguruko iritzia ematen du.

Arfe ebazpena onartu zenetik, Europako Batzordeak finantzatu ditu EBLULen jarduerak, baina horrek ez du esan nahi Batzordeak EBLULen iritziekin bat etorri behar duenik. 1999ra arte B3-1006 aurrekontu-partidaren bidez jaso du diru-laguntza erakunde independente horrek; partida hori izan da hizkuntza erregional eta minorizatuen finantziazio-iturri nagusia eta berariazkoa. 1999an, ordea, Europako Auzitegi Nagusiak xedatu zuen legez kanpokoak zirela

berariazko oinarri legislatibo bat ez duten gaietarako diru-lerroak, eta hori zen B3-1006 partidaren kasua.

Aurrekontu partida hori, batetik, EBLUL eta Mercator zentroak diruz laguntzeko erabili izan da, eta, bestetik, laurogeiko hamakadaren erditik aurrera Batzordeak hainbat proiektu bultzatu izan ditu (hezkontza proiektuak, Euromosaic...).

1999an hizkuntza gutxiak sustatzeko berariazko programa bertan behera geratu zenetik, programa orokorretan integratzen dira hizkuntza horiek. Bide horretatik, 2003an, Europako Batzordeak Hizkuntz Aniztasuna eta Hizkuntzen Ikaskuntza Sustatzeko 2004-2006 urteetarako Plana argitaratu zuen. Bertan jasotzen denez, europar orok, ama-hizkuntzaz gain, beste bi hizkuntza jakin beharko lituzke. Programa horrek hizkuntza guztiak hartzen ditu kontuan: "the smaller European languages as well as the larger ones, regional, minority and migrant languages as well as those without "national" status".

Ikus daitekeenez, Europako erakundeek egin dute ahaleginik hizkuntza gutxitu eta erregionalak sustatzeko, baina erakundearen jatorrizko irizpideak indarrean jarraitzen du. Gero eta hizkuntz aniztasun handiagoa du EBk: zabalkundearekin ugaritu egin dira hizkuntza ofizialak eta, zer esanik ez, hizkuntza gutxiak eta erregionalak. Nola kudeatu kapital linguistiko hori guztia? Nola egokitu EBren hizkuntza araudia egungo errealitatera eta nola gauzatu hizkuntza-politika demokratikoagoa? Hona hemen etorkizunerako proposamen bat.

9. ETORKIZUNA: EB-REN HIZKUNTZA-POLITIKA EGOKITZEKO PROPOSAMENA

Gero eta gehiago dira indarrean dagoen irizpideari ezin zaiola eutsi eta formula berriak bilatu behar direla dioten ahotsak. Gaiak eztabaida sutsuak eragiten ditu, ordea: batzuen iritziz, irizpide hori aldatzea Europar Batasunaren esentziaren eta helburuen kontra doa; beste muturrean, badira lan-hizkuntza bakarra nahi dutenak, ingelesaren alde egiten dutenak, alegia; hirugarren multzo batean, aldiz, lan-hizkuntzak hiru (ingelesa, frantsesa eta alemana) edo bostera (ingelesa, frantsesa, aleman, gaztelania eta italiara) murriztea defendatzen dutenak daude. Azter ditzagun aukera horiek banan-banan:

- **Hizkuntza ofizialak = lan-hizkuntzak.** Hainbat estatuk ez dute ekuazio hori apurtzerik nahi, ofizialtasunaren estatusa galtzeko beldurrez. 1994an, Frantziako atzerri-ministroak, Alain Lamassourek, EBko lan-hizkuntzak ingeles, frantses, aleman, gaztelania eta italiarara mugatu beharko liritekeela adierazi zuen elkarrizketa batean. Berehala entzun ziren kontrako ahotsak, eta 1995ean Europako Parlamentuak ebazpen bat onartu zuen, hizkuntza ofizialen eta lan-hizkuntzen arteko parekotasuna aldarrikatuz, eta parekotasun hori apurtzeko edozein saio arbuiatuz.
- **Ingelesaren aldeko apustua:** Ikuspegi honen arabera, ingelesa da mundu mailan komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza, eta, beraz, EBk ere hori soilik hartu behar luke lan-hizkuntzat. Hainbatek defendatu izan du ekonomia, zientzia eta kulturaren unibertsalizazioari hizkuntzaren unibertsalizazioa dagokiola.

Ez dirudi ikuspegi hori nagusituko denik, kontrako arrazoi ugari ditu-eta:

1. Ingelesa bitartekari unibertsal izan dadin defendatzen dutenek hizkuntza kode inpersonaltzat hartzen dute, komunikazio teknikorako bitarteko soiltzat, bere dimentsio soziopolitikoak alde batera utzita. Defendatzen dute nazioarteko komunikazio-bide gisa erabilitako ingelesa hizkuntza neutroa dela, konnotazio kulturalik gabekoa, eta, beraz, ez dela mehatxu gainerako hizkuntzentzat, komunikazio-bide osagarria baizik. Baina ez da horrela: beste hizkuntzetako hitzunik hitz egiten duten ingelesa sinplifikatua da, baina finean ingeles-hitzunik hitz egiten duten bera, eta, beraz, beste edozein hizkuntza bezala, inplikazio kultural eta sozialez josia dago.
2. Europar askorengan ingelesa erabiltzeak kultura amerikarrarekiko mendekotasun-sentimendua sortzen du, eta jatorriz ingeles-hitzunak direnei abantaila ematen die. Hizkuntza eta boterea banaezinak direnez, herrialde anglosaxoien hegemonia eta gainerakoien kolonizazio kulturala ekarriko luke.
3. Sentimendu europarra oso apala izan da herrialde horretan.
4. Ez da bateragarria hizkuntz aniztasunaren aldarrikapenarekin eta defentsarekin. Esperientzia historikoak erakusten du edozein "lingua

francak” besteak ordeztuko joera duela, eta, ondorioz, gatazka eta mendekotasun-sentimendua sortzen direla.

Aniztasunari eusteko eta mundu globalizatuaren komunikazio-premiei erantzuteko, areagotu egin behar da hizkuntzen ezagutza, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak, Europar Batasuneko aginte gorenak, behin baino gehiagotan adierazi du etorkizuneko europarrek, ama-hizkuntzaz gain, bi hizkuntza jakin beharko lituzketela. Izan ere, hizkuntza bakarrera mugatuz gero, ingelesa nazioarteko komunikazio-hizkuntza bihurtuko litzateke Europan, eta hori ekidin nahia dago horren atzean.

Europa batua eraikitzeak ezin du ekarri aniztasunari bizkar eman eta hizkuntza bakar baten alde egitea: Europa batua eraikitze bidean, hizkuntza-politikak aniztasunari eustea izan behar du helburu, eta, beraz, bestelako bide batetik jo beharko litzateke.

- **Lan-hizkuntzak mugatzea.** Itzulpen-sistema gero eta konplexuagoa da, gero eta gastu handiagoa du, eta gero eta bideragaitzagoa da. 20 hizkuntza ofizial izanda 360 hizkuntz bikote sortzen dira. Terminoen arteko parekotasun falta eta horrek segurtasun legalaren aldetik dakarren mehatxua, gutxien hedatutako hizkuntzetara itzulpena egin arte igarotzen den denbora-tarte luzea (hilabete inguru), egindako ahaleginaren eta lortutako emaitzen arteko oreka falta... Esan liteke eleaniztasun integralaren printzipioa, alegia, estatu kide guztietako hizkuntza ofizialak EBko hizkuntza ofizial izatearen printzipioa, agortuta dagoela egun.

Gainera, irizpide horrek ez du bermatzen hizkuntza guztiak parean daudenik: komunikazio pertsonalen eta zerbitzu-harremanen bi heren ingelesez eta frantsesez egiten dira.

Kontuan izan behar da, halaber, EBz gain, ez dagoela hizkuntza-irizpide hori duen nazioarteko erakunderik, guztiak lan-hizkuntzak mugatuta dituzte-eta. Esaterako, NBEk sei lan-hizkuntza ditu (frantsesa, ingelesa, errusiera, gaztelania eta txinera. 1973an arabiera ere hizkuntza ofizial eta neurri batean lan-hizkuntza izendatu zuen), UNESCOk bost (frantsesa, ingelesa, errusiera, gaztelania eta txinera), eta NATOk eta Europako Kontseiluak bi (frantsesa eta ingelesa).

Erakunde horietan zabalduetako bideari jarraituz, hirugarren ikuspegi honen aldeko batzuek ingelesa eta frantsesa ezarri nahi dituzte lan-hizkuntza gisa. Miquel Siguanen esanetan, Erromako Ituna sinatzean irizpide hori ezarri izan balitz, gaur egun inork ez luke eztabaidatuko, baina Ingalaterra hasierako sinatzaileen artean ez zegoenez, ingelesa kanpoan uzteko tentazioa handiegia izan zen. Orain ezinezkoa da erabaki hori hartzea, ordea, Alemaniak ez luke-eta inondik inora onartuko; izan ere, pisu politiko handia du erakundean eta, gainera, alemana da EBn gehien hitz egiten den hizkuntza. Hori kontuan izanda, egokiagoa dirudi lan-hizkuntza ingelesa, frantsesa eta alemana izendatzea.

Proposamen horrek aldeko asko ditu (horien artean Siguan bera), baina baita kontrakoak ere, eta, Erromako Itunak Batasuneko hizkuntza-araudia aho batez onartu behar zela xedatu zuenez, oraingoz, ez da ezer aldatuko, nahiz eta zabalkuntzak zailtasun ugari ekarri. Akordio batera iristeko zailtasunak hainbestekoak dira, Konstituzioan ez da aldaketarik sartuko, eta Europaren hizkuntz aniztasuna gogoraraztera mugatuko da. Bide horretatik, gero eta ahots gehiagok eskatzen dute hizkuntza-auzietan gehiago kualifikatua aski izatea, zabalkundeak gero eta zailago egiten du-eta erabakiak aho batez hartzea.

Eragozpenak eragozpen eta zailtasunak zailtasun, lan honen egileak hirugarren ikuspegiarekin bat egiten du, eta etorkizunean bide horretatik joko delakoan dago. Era horretan, gaur egun bezala, EBko erakundeek akordio eta erabaki guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzuliko lirake, baina lan-hizkuntza gisa (erabakien prestaketa, kudeaketa...) gutxienez hiru (ingelesa, frantsesa, alemana) eta gehienez bost (ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelania eta italiera) erabiliko lirake.

Dena den, lan-hizkuntzak murriztuta ere, hizkuntza ofizial guztiek tratamendu bera izan behar lukete hiru arlotan:

-Europako Parlamentuaren funtzionamendua. Aukeratuak izateko eskubidea ezin da murriztu hizkuntza jakin batzuek dakizkitenengana. Parlamentuko kideek euren herrialdeko hizkuntza ofizialean jarduteko eskubidea dute, eta jardun hori hizkuntza ofizial guztietara itzuliko da.

-Herritarrei zuzendutako informazioa hizkuntza ofizial guztietan argitaratu behar da: herritarrei zuzendutako legeak eta programak, argitalpenak, oinarrizko legetestuak eta abar.

-EBko erakundeek eta estatu kidearen artean estatuaren hizkuntza ofiziala baliatuko da. Berdin erakundeek eta herritarren arteko harreman formaletan ere.

Hala, hizkuntz aniztasunari ikuspegi praktiko batetik helduko genioke, eta ez litzateke auzi burokratiko hutsa izango. Halaber, lan-hizkuntzak murrizteak hizkuntza erregional edo gutxituei atea zabalduko lieke, goiko hiru arlo horietan erabili ahal izango lirake eta. Hala dio Bojan Brezigar-ek:

“If the linguistic rights would be limited to these points, the saving could probably make available sufficient amount of money to give the same service in the most important regional or minority languages as well, maybe starting with those linguistic family which do not have any linguistic reference to any of the official/work languages of the EU”.¹¹

Beraz, hasiera batean besterik eman badezake ere, ikuspegi hau askoz ere mesedegarriagoa da hizkuntz aniztasunarentzat egun indarrean dagoena baino. Izan ere, bide horretatik joz gero, leundu egingo litzateke hizkuntza

¹¹ Brezigar, Bojan (2003): “Official languages and language diversity in the European Union”, www.amarauna-languages.com

ofizialen eta ez-ofizialen artean gaur egun egiten den bereizketa, eta zenbait hizkuntza ez-ofizial Batasunean erabiltzeko aukera zabalduko litzateke.

Bestela esanda, etorkizuneko eredu horretan, egungo hizkuntza ofizial eta ez-ofizialen bereizketa egin beharrean, lan-hizkuntzak eta zerbitzu-hizkuntzak bereiziko lirateke. Zerbitzu-hizkuntza izan beharko lukete hizkuntza erregional eta gutxituek ere, bigarren mailako hiritarrik egon ez dadin eta guztien hizkuntz eskubideak gauza daitezen. Hori da hirugarren bide honek defendatzen duena: zerbitzu-hizkuntzaren figurarekin, hiritarrek erakundeetan euren hizkuntza erabiltzeko duten eskubide demokratikoa gauzatuko litzateke, eta lege testuak ere hizkuntza horietan guztietan egongo lirateke eskuragai.

Gainera, gaur egungo ereduak berak uzten du zirrikiturik horretarako. Izan ere, EBk, berez, hizkuntza ofizialak/lan-hizkuntzak eta hizkuntza gutxitu edo erregionalak bakarrik bereizten ditu. Baina gaelikoaren eta luxenburgeraren estatus bereziak, batetik, hizkuntza ofizial eta ez-ofizialen arteko banaketa zurruna apurtzen du, eta, bestetik, agerian uzten du hizkuntza batek hizkuntza ofizial eta lan-hizkuntza egoeraz bestelako estatusa ere izan dezakeela. Funtsean, status berezi horrek hizkuntz eredu europarra gara daitekeela erakusten du, eta horrek atea zabaltzen die egun EBn ofizial ez diren hizkuntzei. Hor dago Europaren hizkuntz antolamendu berrirako gakoa.

10. BIBLIOGRAFIA

Agirreazkuenaga, Iñaki eta Iriondo, Xabier (1994): "Europar erakundeen jarrera hizkuntza gutxituekiko", *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 12. zenb., 11-22 orr.

Alcaraz, Manuel: "Llengües i institucions a la Unió Europea", <http://www.ciemen.org/mercator/pdf/wp5-def-cat.PDF>

Antxustegi, Begoña & Agirre, Amaia: "De qué hablamos cuando hablamos de diversidad lingüística en Europa? La importancia de su definición para determinar el papel de los poderes públicos en su defensa y promoción", in *II Simposi Internacional Mercator:Europa 2004:Un nou marc per a totes les llengües?*, <http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

Argemi, Aureli (2004ko maiatza): "Nolako geroa dute hizkuntza gutxituek EBn?", *Berria*.

BAT soziolinguistika aldizkaria, 44. zk.: *Europako Batasunaren Geroa I. Hizkuntza arloko eskumenen kudeaketa* (2002ko iraila).

BAT soziolinguistika aldizkaria, 45. zk.: *Europako Batasunaren Geroa II. Hizkuntza gutxituak Europako Batasunean* (2002ko abendua).

BAT soziolinguistika aldizkaria, 46. zk.: *Euskara azterketa "makroetan" eta egitasmo berrietan* (2003ko martxoa).

Bengoetxea, Joxerramon (2004-05-01): "Zabalkundearen inguruko gogoetak", *Berria*.

Bidegain, Eneko (2004-05-13): "Betiko sasi proposamenak", *Berria*.

Born, Joachim (2001): "Globalización/regionalización: la contribución de las minorías lingüísticas al proceso de unificación europea", www.ipol.org

Bos i Sole, Alexia: "Further discussions on EU status for Catalan, Basque and Galician: French Foreign Minister Barnier warns against 're-opening difficult issues'", <http://www.eurolang.net/news.asp?id04568>.

Brezigar, Bojan (2003): "Official languages and language diversity in the European Union", www.amarauna-languages.com

Brezigar, Bojan: "Language Policies of the European Union with reference to Regional or Minority Languages", Iñaki Martínez de Lunak eskuratutako artikulua.

Brezigar, Bojan: "Os retos lingüísticos da ampliación Europea", <http://216.247.169.135/futurum/pajenn.asp?ID=42>

Brezigar, Bojan (2002): "The linguistic diversity within the European Union enlargement process – The role of regional or minority languages", <http://216.247.169.135/futurum/pajenn.asp?ID=45>

El País: "El difícil 'puzzle' de Europa", 2004ko maiatzaren 2ko gehigarria.

Etxeberria, Mikel: "Hizkuntza gutxituak zein erregionalak babestu behar dira Europako ondare direlako", *Euskonews & Media*, http://euskonews.com/0243zkb/elkar_eu.html.

Europako Batzordea (2003): "Promover el aprendizaje de idiomas y la diversidad lingüística: Un Plan de acción 2004-2006". <http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/cha/c11068.htm>.

Europako Mugimenduaren Euskal kontseilua (2004): *Europa ante su futuro. Una visión desde Euskadi*. Bilbo.

Favereau, Francis: "Minority languages and european citizens", www.amarauna-languages.com

Goikoetxea, Jakes (2004-05-22): "Itxaropen faltsuak, benetako datuak", *Berria*.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egindako txostena, Espainiako estatuak Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna ez duela betetzen salatzen. www.erabili.com

Hizkuntza Gutxituen edo Erregionalen Europako Gutuna, www.erabili.com

Juaristi Larrinaga, Patxi (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Bilbo: Euskaltzaindia, BBK Fundazioa.

Khalleva, I.: "Official Languages and Language Diversity in the European Union", www.amarauna-languages.com

Kontseilua: "Kontseiluaren aldarrikapena Europako hizkuntzen egunean: Europako legediak euskararen diskriminazio konstituzionala gainditu behar du", Karmel, 236. zenbakia (2001eko urria-abendua), 55-57 orr.

"*Lenguas minoritarias y construcción europea*", http://parlamento.euskadi.net/htmldocs/europa/noti/c_noti_03a01.htm,

Leprêtre, Marc: "Europar hizkuntz politika berrirako gomendioak", *BAT* soziolinguistika aldizkaria, 12. zenb., 33-38 orr.

Marín González, Gelu (2000): *Atlas de Europa: La Europa de las lenguas, la Europa de las naciones*. Fundamentos, doktorego tesia.

Mendiguren, Xabier (2004-05-29): "Euskararen ofizialtasuna Europara hedatu behar dugu", *Berria*.

Ó Riagáin, Dónall: “The European Union and Lesser Used Languages”,
www.unesco.org

Phillipson, Robert: “If language policy issues are explosive, how should they best be handled?”, in *II Simposi Internacional Mercator:Europa 2004:Un nou marc per a totes les llengües?*
<http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

Propuesta de resolución del Parlamento Europeo sobre la preservación de la diversidad cultural: el cometido de las regiones europeas y organizaciones internacionales como la UNESCO y el Consejo de Europa (2002/2269(INI)), <http://www.ciemen.org/mercator/ue34-sp.htm>,

Resolución del Parlamento Europeo con recomendaciones destinadas a la Comisión sobre las lenguas europeas regionales y menos difundidas – las lenguas de las minorías en la Unión Europea en el contexto de la ampliación y la diversidad cultural (2003/2057(INI)),
<http://www.ciemen.org/mercator/ue33-sp.htm>,

Ruiz Vieitez, Eduardo J.: “Europako hizkuntza gutxituen estatus ofiziala”,
Euskonews & *Media*,
<http://www.euskonews.com/0243zbnk/gaia24302eu.html>.

Ruiz Vieitez, Eduardo J.: “Lenguas oficiales y lenguas minoritarias: cuestiones sobre su estatuto jurídico a través del derecho comparado”, in *II Simposi Internacional Mercator:Europa 2004:Un nou marc per a totes les llengües?*, <http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

Siguan, Miquel (1996): *La Europa de las lenguas*. Madril: Alianza Universidad.

Siguan, Miquel (2004): “La política lingüística de la Unión Europea (DT)”,
www.realinstitutoelcano.org

Siguan, Miquel: “El futuro de las lenguas menores en Europa”, *Euskonews* & *Media*, <http://euskonews.com/0243zbnk/gaia24301es.html>.

Siguan, Miquel: “Hizkuntza ofizialak eta hizkuntz aniztasuna Europar Batasunean”, www.amarauna-languages.com

Siguan, Miquel: “Una política lingüística para Europa”,
<http://europa.eu.int/spain>

Strubell i Trueta, Miquel: “El projecte Euromosaic: Els grups lingüístics de l'Europa comunitària i una proposta de política lingüística europea”, *Diálogos hispánicos*, 19. zenbakia, 11-28 orr.

Strubell, Miquel: “Building a multilingual Europe: discourse or rethoric?”
Strubell-ek berak igorritako artikulua.

Strubell, Miquel: “Linguistic and cultural diversity in the EU: ‘OK, but let’s not overdo it’ ”. http://cv.uoc.es/~grc0_003638_web/02_05_06_Onati-MSz.doc

Toggenburg, Gabriel N.: “United in diversity: Some thoughts on the new motto of the enlarged Union”, in *II Simposi Internacional Mercator:Europa 2004:Un nou marc per a totes les llengües?*, <http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

Uranga Belen, Izagirre Esti, Idiazabal Itziar, Barreña Andoni, Amorrortu Estibali: “Europako hizkuntza gutxituak: datu orokor batzuk”, *Euskonews & Media*, <http://www.euskonews.com/0243zkb/gaia24303eu.html>.

Urrutia Libarona, Iñigo: “Régimen jurídico de las lenguas y reconocimiento de la diversidad lingüística en la Constitución Europea”, in *II Simposi Internacional Mercator:Europa 2004:Un nou marc per a totes les llengües?*, <http://www.ciemen.org/mercator/simposi/ponencies.htm>

Warasin, Markus: “Towards linguistic rights in the EU 2004. The promotion of linguistic diversity as part of the new constitutional treaty of the European Union”, www.ciemen.org/mercator,.

Zuberogoitia, Aitor (2000): *Globalizazioaren adarrak*. Irun: Alberdania.

Zuberogoitia, Aitor: “Globalizazio garaiotarako iraupen-estrategia bat euskal hizkuntza-komunitatearentzat: komunikazio-esparru autozentratua”. Topagunea: *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, 25-32 orr.